

BIZI BEDI A. LARRAMENDI-REN IZENA.



Nola ontziak ez duen uzten uren gañean,
 Lorratzik nondik joan dan iñork igarteko,
 Ala arranoak airetan egan dabillenean
 Ez du markatzen non igaro zan ikusteko;
 Siñalerikan lagatu gabe lengo astean,
 Aitu zan oso *Igaz*, sekulan ez biztzeko;
 Baña illaz bat, *Aurten* zan jayo bere antzean,
 Arrastorikan utzi gaberik bukatzeko.

Jayo denakiñ au; baña ez da beti gertatzen,
 Umantik illten ¿menturaz iñork du ikusi?
 Beren oñatzik ¿non ikusi da noiz ezkututzen,
 Beren egintzak argiz ez dira beti bizi?
 ¡O! Larramendi umant bat nola zeran benetan,
 Zure izena ¿zeñek lezake ill erazi?

FELIPE ARRESE TA BEITIA.

Ochandion, 1891-ko Illbeltzean.

